

72 KILOS PLANIFIKAZIOA DBHko 3. mailako Plastika arloa 2025-2026 ikasturtea (otsaila-ekaina)

OTSAILA 9-13

1. JARDUERA	Ikas-egoeraren, helburuen, landuko ditugun konpetentzia espezifikoen, jakintza-gaien, ebaluazio-irizpideen, planteamenduaren, baliabideen eta planifikazioaren azalpena egitea. Proiektua burutzeko erabiliko dugun baliabide berezia azaldu: ikasle bakoitzak bere proiektua garatzeko libreta edo koaderno txiki bat eta marrazteko eta koloreztatzeko arkatzak, margoak eta errotuladoreak erabiliko ditu. Bertan, proiekturako ideiak, zirriborroak, marrazkiak, argazkiak, albisteak... bilduko ditugu. Plastika arloan erabiltzen ditugun plastikagela.com webgunean eta Showbie aplikazioan ikas-egoerari buruzko informazioa erakustea eta azalpenak egitea. Proiektuarekin hasteko, plastikagela.com webguneko 72 KILOS atalean dugun 72 KILOS proiektuaren aurkezpen bideoa ikusi eta aztertuko dugu ideien zaparrada eginez, lehenbizi talde txikietan eta gero talde osoko bileran galdera hauei erantzunez: • Zeintzuk eduki proposatzen dira bideoan? • Zer lor dezakegu gure sentimenduak adierazten? • Zein da proiektuan landuko dugun Garapen Jasangarrirako Helburuetako bat? Zergatik? • Zelakoa izango da Óscar Alonso, 72 KILOSen parte-hartzea gure proiektuan? 72 KILOS proiektuaren aurkezpen bideoan agertutako edukietan eta ideien zaparradan agertutako ideietan oinarrituta, marrazki bat egingo dugu proiektuari buruz gure iritzia adieraziz. Marrazkian IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu.
-------------	---

OTSAILA 18-20	
2. JARDUERA	plastikagela.com webguneko 72 KILOS atalean ditugun 72 KILOS Cariñoterapia con Sentido #1, TOO GOOD TO GO eta Aitana firma la ilustración solidaria de 72 Kilos bideoak ikusi eta aztertuko ditugu. Ondoren, ideien zaparrada egingo dugu, lehenbizi talde txikietan eta gero talde osoko bileran galdera hauei erantzunez: • Ze onurak ekarriko dizkigu gure sentimenduak, kezka, zalantza... adierazteak? • Zer esan nahi du Óscarrek esaldi hauekin: • <i>No tengo miedo de que la gente sepa que me estoy sintiendo así.</i> • <i>El papel del arte para cambiar el mundo tiene una labor muy importante.</i> 72 KILOS proiektuaren aurkezpen bideoan agertutako edukietan eta ideien zaparradan agertutako ideietan oinarrituta, marrazki bat egingo dugu proiektuari buruz gure iritzia adieraziz. Marrazkian IZEN-ABIZENA eta DATA idatziko ditugu.
OTSAILA 23-27	
3. JARDUERA	Bakoitzak gure sentimenduak adierazteko, gure sentimenduen edo kezka eragiten dizkiguten ideien zaparrada idatziko dugu gure koadernoan. Ondoren, talde osoko bileran, ideien zaparrada egingo dugu, agertu diren gaiei buruz hitz egiteko eta sentimendu eta ideia horiek nola afektatzen dizkiguten aztertzeke. Jarraian, bakoitzak gure koadernoan, gure ideien zerrenda handituko dugu talde osoko bileran agertu diren sentimenduak eta ideiak gehituz. Ideia guzti hauek gure irudiak egiteko iturriak eta inspirazioa izango dira. Bakoitzak gure sentimenduei buruzko zirriborroak egingo ditugu, lerroak, formak eta koloreak erabiliz eta ideiei, sentimenduei eta zirriborroei buruzko anotazioak idatziz, aztertuz eta irudian aplikatuz. Zirriborroetan IZEN-ABIZENA, DATA eta atal hauen ANOTAZIOAK idatziko ditugu: 1. Irudiaren mezua: adierazten dugun sentimendua. 2. Testua. 3. Lerroak. 4. Formak. 5. Koloreak.

MARTXOA 2-6	
4. JARDUERA	Ikasgelan 72 KILOSen liburuetan eta http://www.72kilos.com webgunean dauden binetak irakurriko ditugu, egileak erabiltzen dituen irudiaren baliabideak (lerroak, formak eta koloreak) sailkatuz eta aztertuz. Bakoitzak 72 KILOSen lanari buruzko galdera bat edo gehiago idatziko dugu, 72 KILOSen bineta bati edo gehiagori erreferentzia eginez. Aukeratu dugun bineta edo binetak gure koadernoan kopiatuko ditugu. Era honetan, 72 KILOSen marrazteko, margotzeko eta idazteko estiloa landuko dugu, gerora, gure lana egiteko baliagarria izango zaiguna. Zirriborroetan IZEN-ABIZENA, DATA eta ANOTAZIOAK idatziko ditugu.
MARTXOA 9-13	
5. JARDUERA	plastikagela.com webguneko 72 KILOS atalean eta SlideShareko PlastikaDBHLauro plataforman dugun Koloreak eta emozioak aurkezpena ikusi eta aztertuko dugu. Bakoitzak gure sentimenduei buruzko zirriborroak egingo ditugu, lerroak, formak eta koloreak erabiliz eta ideiei, sentimenduei eta zirriborroei buruzko anotazioak idatziz, aztertuz eta irudian aplikatuz. Zirriborroetan IZEN-ABIZENA, DATA eta atal hauen ANOTAZIOAK idatziko ditugu: 1. Irudiaren mezua: adierazten dugun sentimendua. 2. Testua. 3. Lerroak. 4. Formak. 5. Koloreak.
MARTXOA 16-20	
6. JARDUERA	Bakoitzak gure sentimenduei buruzko zirriborroak egingo ditugu, lerroak, formak eta koloreak erabiliz eta ideiei, sentimenduei eta zirriborroei buruzko anotazioak idatziz, aztertuz eta irudian aplikatuz. Zirriborroetan IZEN-ABIZENA, DATA eta atal hauen ANOTAZIOAK idatziko ditugu: 1. Irudiaren mezua: adierazten dugun sentimendua. 2. Testua. 3. Lerroak. 4. Formak. 5. Koloreak.

MARTXOA 23-27	
7. JARDUERA	72 KILOS proiektuan sortuko dugun binetaren atalak (testua eta irudia) ulertzeko eta ondo harremantzeko, Atalak eta Osotasuna pentsatzeko trebetasuna landuko dugu. Bakoitzak gure sentimenduei buruzko zirriborroak egingo ditugu, lerroak, formak eta koloreak erabiliz eta ideiei, sentimenduei eta zirriborroei buruzko anotazioak idatziz, aztertuz eta irudian aplikatuz. Zirriborroetan IZEN-ABIZENA, DATA eta atal hauen ANOTAZIOAK idatziko ditugu: 1. Irudiaren mezua: adierazten dugun sentimendua. 2. Testua. 3. Lerroak. 4. Formak. 5. Koloreak.
APIRILA 13-17	
8. JARDUERA	Prozesuan zehar egindako lanaren ebaluazioa eta autoebaluazioa egitea: talde osoko bileran, ikasle batzuen zirriborroak eta anotazioak ikusi eta aztertuko ditugu, irudiotan ikusizko baliabideen identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez eta kideen lanekiko errespetua erakutsiz. Zirriborroetan, ikasleek planteatutako hasierako ideiak lortzeko, ikusizko baliabideak era egokian erabili diren aztertuko dugu. Ondoren, ikasle bakoitzak bere lanaren autoebaluazioa egingo du, planteatutako hasierako ideiak lortzeko ikusizko baliabideak era egokian erabili dituen aztertuz lanaren garapena ebaluatzeko.

APIRILA 20-24	
9. JARDUERA	Sormen prozesuaren autoebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, planteatutako hasierako ideiak era egokian lortzeko ikusizko baliabideak era egokian erabiliz. Zirriborroak egiten eta anotazioak idazten jarraitzea. Zirriborroetan IZEN-ABIZENA, DATA eta atal hauen ANOTAZIOAK idatziko ditugu: 1. Irudiaren mezua: adierazten dugun sentimendua. 2. Testua. 3. Lerroak. 4. Formak. 5. Koloreak.
APIRILA 27-30	
10. JARDUERA	Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza landuko dugu. Azken emaitza kartoi-mehean egingo dugu formatu karratuan.
MAIATZA 4-8	
11. JARDUERA	Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza landuko dugu. Azken emaitza kartoi-mehean egingo dugu formatu karratuan.
MAIATZA 11-15	
12. JARDUERA	Azken emaitza digitalki nola egin azaldu: paperean egindako irudian oinarrituta, Sketchbook aplikazioa erabiliz irudia digitalizatzea. Kartoi-mehean egindako azken emaitza bukatu eta aurkeztu. Paperezko azken emaitza bukatu duten ikasleek azken emaitzaren irudi digitala egingo dute.

MAIATZA 18-22	
13. JARDUERA	Paperezko azken emaitza bukatu duten ikasleek azken emaitzaren irudi digitala egingo dute. Azken emaitzaren irudi digitala bukatu duten ikasleek honen bertsioak egingo dituzte. Bertsioak bukatzerakoan, zirriborro bat aukeratu eta zuzenean horren irudi digitala egingo dute.

MAIATZA 25-29	
14. JARDUERA	Portafolioa egitea: hasierako planteamendua eta ideiatik hasita azken emaitzaraino egindako lanaren bilduma osatzea. Egindako lanaren argazkiak eginez, portafolio digitala nola egin azaltzea, ereduak ikusiz eta aztertuz. Egindako lanaren argazkiak egin eta irudi digitalak deskargatu ondoren, portafolio digitala Keynote aplikazioan sortzea. Ikasleek portafolio digitalaren aurkezpenaren ereduak Showbien izango dute, bertatik Keynote aplikazioan deskargatuko dute, eta portafolioa osatu ondoren, Showbiera pdf formatuan bidaliko dute era egokian izendatuta.

EKAINA 1-5	
15. JARDUERA	Portafolioa aurkeztu duten ikasleek azken emaitzaren bertsioak edo zirriborrorren baten irudi digitala egingo dute.